# GAREZURREKO TRAUMATISMOA
# TRAUMATISMO CRANEAL

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **GAREZURREKO TRAUMATISMOA.**

Zure seme-alabak burezurreko traumatismo arina eduki du. Medikoek aztertu dute eta ez diote ezer kezkagarririk aurkitu. Hala ere, etxean, hurrengo 24 orduetan hurbiletik zaindu behar duzu (gauez esnatuta ere, beharrezkoa bada).

Normala da beldurtuta-edo jarraitzea, kolpe-unea ez gogoratzea, gorakoren bat edukitzea, hurrengo orduetan zefalea lausoaz edo traumatismo-aldeko minaz kexatzea. Baina, jarraian aipatzen diren zantzuren bat nabaritzen baduzu, berriro joan behar duzu umearekin larrialdietako zerbitzu batera beste azterketa bat egitera:

- Buruko min edo haserrekortasun bizia (etengabeko negarra) .
- Gorakoak behin eta berriro.
- Odola sudurretik edo belarrietatik edo likido argia dariola ikusten baduzu.
- Nahastuta egotea, desorientatuta, hurbileko senideak ez baditu ezagutzen, ez badaki non dagoen…
- Gorabeherak baditu: oreka, ibilera, ikusmena edo hizkera, etab.
- Mugimendu arraroak, ezin badu hanka edo eskua mugitu, ez badu indarrik hanka edo eskuan.

Sintoma hauek agertzen ez badira ere, komenigarria da hurrengo 24 – 48 orduetan zure pediatrarenera joatea.

Su hijo ha sido diagnosticado de **TRAUMATISMO CRANEAL** por los síntomas que presenta en el momento actual

Su hijo ha sufrido un traumatismo craneal de carácter leve. Ha sido reconocido por personal médico, no habiendo encontrado ningún hallazgo preocupante en el momento actual. A pesar de ello, usted debe realizar una vigilancia domiciliaria estrecha (incluso despertándole a la noche) durante las siguientes 24 horas.

Es normal que continúe un poco asustado, que no recuerde el momento del golpe, que tenga algún vómito esporádico o que se queje de cefalea difusa o en la zona del traumatismo en las próximas horas. Pero si usted detecta alguno de los signos que se enumeran a continuación debe acudir de nuevo con su hijo a un servicio de urgencias para nueva valoración:

- dolor de cabeza o irritabilidad (llanto continuo) intensas
- vómitos repetidos
- salida de sangre o de un líquido claro por los orificios nasales o por los oídos
- si está desorientado, confuso, no conoce a los familiares próximos, no sabe dónde está...
- alteración del equilibrio, de la forma de andar, de la visión o de la forma de hablar, etc.
- movimientos extraños, incapacidad para mover o pérdida de fuerza de una mano o pierna.

Aun en ausencia de estos síntomas, es conveniente que visite a su pediatra, dentro de las próximas 24 – 48 horas.